



Espazioaren esplorazioa indarberritzen ari da eta ESAk ez du gibelean gelditu gura

Europa Martitzerantz

Inaki Irazabalbeitia*

Ilargia eta Martiz ez dira jada zientzialarien hizpide soilik. Azken hilabeteotan ohiko berri bihurtu dira komunikabideetan. *Martitzen Esploratzailea*, *Martitzen Lur-neurtzaile Globala* eta *Ilargi-prospektorea* etxekotu egin zaizkigu, ondorioz. *Martitzen Esploratzaileak* iazko irailaren 27an transmititu zituen azken aldiz datuak, baina ordurarte igorritako informazio-oldea prozesatzen baino ez dira zientzialariak hasi. 1.650 irudi eta hamaika bestelako datu altxor preziatua dira, etorkizunean Martitzi buruzko gure irudia osatu eta birmoldatuko dutenak.

Martitzen Lur-neurtzaile Globala uste baino beranduago hasiko da lanean. Izan ere, untzia eguzki-paneletako batean izandako egitura-arazoak aerobalaztatze-maniobra astiroago egitera behartu ditu NASAko teknikariak. Beraz, urtebete geroago hasiko da Martitzen gainazala kartografiatzen. Bien bitartean, *Martitzen Lur-neurtzaile Globala* ez da lozorroan egongo eta zundaren tresneria zientifikoa lanean arituko da Martitzi buruzko datuak biltzen.

Europak ez du atzean gelditu nahi Martitzen esplorazioan. Errusia-

rrek gidatutako *Martiz 96* misioaren porrota muturreko ederra izan zen Europako zientzialari planetarioentzat, Martitzi buruzko lehen eskuko datuak ihes egiten baitzieten. Hutsune hori betetzeko asmoz ESA, Europako Espazio Agentzia, *Martiz Espres* izeneko misioa aztertzen ari da, 2003ko maiatzaren edo ekainean abiatuko litzatekeena.

Jakina, misioaren egitura definitu gabe dago oraindik eta ESAk bertan joango liratekeen esperimentuak mugatzeko deialdia zabaldu du Europako zientzialari planetarioen artean. Hala ere, egungo ikuspegitik, *Martiz Espres* misioa orbitatzaile batez eta bat eta hiru bitarteko lurreratze-moduluz osatuko da.

Misioak helburu handiak ditu. Martitzen historia geologikoa osatzeko datuak bildu nahi dira, ur-edukiaren historia egiteko eta paleoklimak definitu ahal izateko. Gainera, planetaren goi-azala, kilometro bateko sakoneran, azertu nahi da, ura eta izotza bilatzeko besteak beste. Halaber, planetaren barne-egitura ere ikertu egin nahi da. Egun, oso datu gutxi daude Martitzen litosfera, mantu eta guneari buruz eta baita beren

arteko erlazioari buruz ere. Martitzen posizioa planeta eta gorputz lurarren multzoan ere aztergai izango da.

Bestetik, atmosfera martiztarra eta gainazalaren konposizio mineralogikoa eta geokimikoa estudiatzea helburu nagusien artean dago.

Martiz Espres zunda *Soiuz* motako jaurtitzaille baten bidez espazioratuko da eta, ondorioz, 1.100 kg-ko karga jarri ahal izango da Martitzeko bidean. 200 egunen buruan planeta gorrira ailegatuko da.

Martiz Espres misioaren azterketa 1997ko ekainean hasi zen, beraz misioaren definizioa hasi baino ez da egin. 1997ko abenduan "aukera-deialdia" egin zen zientzialari planetarioen artean, 1998ko otsailaren 24an itxi zena. Maiatzaren bukaerarako orbitatzailearen eta lurreratze-moduluen zientzi karga, tresneria alegia, definituko da. Azkenik, aurtengo azaroaren amaieran ESAk abiatzen denentz deliberatuko du.

Europarrok ere Martiz gertuago izango dugu, antza.

* Elhuyar